

## Hiri bat, ikuspegi ugari

Udal alderdiek Donostiako politika orokorreko lehen Udalbatza egin zuten

**Asteazkenean, Donostiako politika orokorrari buruzko lehen Udalbatza egin zen. Duela gutxi onartutako Hiri Handien Legeak ahalbideratu du eztabaida saio hau egitea. Alderdiek Donostiaren orainaz eta geroaz duten ikuspuntua azaltzeko beta izan zuten.**

Parlamentu gehientsuenetan egin ohi den bezala, Udalak ere hiriaren egoerari buruzko eztabaida egin zuen asteazkenean. Hona hemen alderdi bakoitzak esandakoaren laburpena.

### PSE-EE: Etorkizuneko erronkak

Odon Elorzak 2005eko aurrekontu itun eskaintza izan zuten ardatz. "Badakigu Udal Gobernuan gutxiengoan gaudela. Horregatik, ahalegin guztiak egingo ditugu hurrengo urteko aurrekontuaren inguruan akordioa ahalbidetzeko", baieztatu zuen. Era berean, iaz aurrekontua onartzeko erabilitako prozedura —konfiantza-galdea erabiltzea, alegia— berriro erabiltzea baztertu zuen.

Alkateak 25 egitasmoren berri ere eman zuen. Besteak beste, Donostian kirol-portuak egiteko egindako bi ikerketak aipatu zituen. Udalaren finantza-egoera ere izan zuen hizpide: "Estatu espainiarrean ez dago guk baino finantza-egoera hobea duen Udalik".

Oposizioko alderdiek egindako kritikei ere erantzun zien: "Oposiziotik kritika ugari jaso dut, baina proposamen bakar



*bat ere ez. Egun gutxiengoan gaudenez, etorkizunean koalizioan gobernatu nahi genuke, baina oposizioak aurrera darman higidura politikak ez du hori ahalbidertzen".*

### EAJ-EA: alkatearekin haserre

Roman Sodupe bozeramailek plazaratu zuen EAJ-EAK agintaldi honi buruz eginiko azterketa. "Azken urte eta erdian alkatearen jarrera ez da batere ona izan: alkateak adostasuna lortzeko gaitasun eza duela nabarmendu da", kexatu zen. Sodupek hitz gogorak izan zituen alkatearentzat: "Hitza jatea alkatearen jokabidean ohikoa da", esan zuen.

**Alkateak 2005eko aurrekontuak adostu nahi dituela esan zuen**


Politika zehatzei dagokionez, Udalaren etxebizitza politikarekin desadostasuna nabarmendu zuen: "Egindako politikaren ondorioz, gazte askok hiritik kanpora joan behar izan du. Honek, hiriaren zahartzea ekarri du". Nolanahi ere, 2005eko aurrekontuei buruz akordioa lortzeko prestutasuna azaldu zuen.

## Errauskailua bai ala ez?

**A**lkatearen iritziz, errauskailua Aritzetan jarri beharrik izen bat du: Inposaketa. "Erabilitako prozedura ezin da amaitu. Ezin dira erabakiak 48 orduetan eta isilean hartu" esan zuen. Prozeduraz gain, kokapenarekin ere ez dago gustura: "Europako beste tokitan zaborrekin zer egiten duten ikustera joan gara. Gehienetan, aurreko zabortegearen ondoan jartzen dute errauskailua. Inoiz ez parke natural batean". EAJ-EAko bozeramaile Roman Sodupe, ordea, ez da iritzi berekoa: "Errauskailua Aritzetan jartzeko erabakia San Markoseko Mankomunitatean dauden alderdiek hartu zuten: PSEk, EAJk, EAK eta PPK. Alderdi sozialistak erabaki bat hartu zuen foro batean, eta gero, erabaki bera blokeatu du bere ardura peko Udalean. Alkatea egiten ari den jokoak bukatu behar du".

## Auditx-Akular hizpide

**O**don Elorza alkateak etxebizitzaren arazoari aurre egiteko babes ofizialeko etxeak (BOE) bultzatuko ditutela berretsi zuen. Udal Gobernuak Auditx-Akularreko lurretan 2.500-3.000 etxebizitza eraikitze ko asmoa du, gehienak BOEak. "Baina udal alderdien arteko akordioa lortu arte, ez ditugu eraikitze lanak esleituko" agindu zuen. Akordioa lortzea ordea, ez da erraza izango. Izan ere, irailen hiru proposamen ezberdin aurkeztu ziren Auditx-Akularrerako. Proposamenak aurkeztu eta berehala PSE-EEK eta EBK Patxi de Leonek aurkeztutako proiektuaren alde egin zuten. EAJ-EAK, berriz, Llanos-Masiaren proposamenaren alde egin du, eta PPK azken proposamen hori eta Marcial Echeniquerena hobetsi ditu. Bi alderdiok ez dutela Patxo de Leonen proiektua babesteko jakinarazi dute. Auditx-Akularrek zeresana emango du oraindik ere



### PP: Gonbidapena PSE-EEri

PPko Maria Jose Usandizagaren arabera, hiria etorkizuna oso kezagarria da. "Alkatea aukerak bata bestearen atzetik galtzen ari da. Odonek urte gehiegitxo daramatza alkatetzan, eta ambizio guztia galdu du. Donostiak erronka handiak ditu, eta egungo alkatea ez da erronka horiei aurre egiteko gai", esan zuen. Hala ere, hiri beraiekin batera gobernatzeko gonbidapena egin zion Elorzari: "Akordioa lortzeko egiten dizugun sei garren gonbidapena da honakoa. Aurrekoetan mespretxua izan da zure erantzuna. Baina Udal honek egonkortasuna emango dion Gobernu behar du".

### EB-Berdeak: Auzoen agintaldia

Duñike Agirrezabalagaren ustez, "beha-

*rrezkoa da demokrazia parte-hartzailea bultzatzea: batetik, Udalaren zilegitasuna handitzeko, eta bestetik, eraginkortasuna lortzeko". Bestalde, auzoen garran-*

## Oposizioko alderdiek Odon Elorzaren jarrera kritikatu zuten

tzia nabarmendu zuen: "Auzoak izan behar dira proiektu estrategikoen oinarri. Agintaldi honek, auzoen agintaldia izan behar du". Oro har, Udalaren politika balekotzat jo zuen, nahiz eta eskasa iruditu emakumeen, etxebizitzaren eta gazteria-

ren arloetan egindakoa. "Ez dugu egoera benetan dena baino okerrago azaldu nahi, baina oraindik asko dago egiteko", amaitu zuen.

### Baga Boga: parte hartu ezinik

Baga Boga Donostialdeko herri ekimenak ezin izan zuen Udalbatzaren osoko bilkuran parte hartu. Hala ere, beraien iritzia azaltzeko saioa egin zuten, eta ondoren, balorazioa plazaratu zuten. "Eztabaida honetan, zoritxarrez, ez dira ahots guztiak ordezkatuak egon. Izan ere, Donostiako Udalean 10.000 donostiar ordezkatzen ditugun arren, ezin izan dugu gure iritzia eman. Udalbatzaren aurretik, gure parte hartzea bermatzeko eskaera luzatu genion alkateari, baina ez dugu erantzunik jaso", esan digu Baga Bogako Iñigo Baldak.

## MOKO eta KAPMELE

